

noaia

Indarrak elkartuz, ametsak garatuz

L KOOPE

500. zenbakian,
diseinu berriarekin
dator NOAUA! aldizkaria

Ikastaro ugari, herriko
taldeen eskutik

Larunbat honetan
"Terapia?" antzezlan
frontoian

**Gaztetxea nahi dute,
"herritik herriarentzat"**



FUNERARIA GONZALEZ EHORZTETXEA

munalurra 8, Usurbil

943 36 21 63
660 388 652 - 608 16 77 92

·Zerbitzu azkarra eta etengabea 24h
·**TANATOPRAXIA** eta **BERRERAIKETA**
zerbitzua Euskal Herrian eta atzerrian.

·**ADN frogak** eta **ADN gordagailuak**

·**BEILATOKI GUZTIETAN** zerbitzuak

·**ERRAUSKETA** eta errauts-kutxak

·**ASEGURU** konpaini **GUZTIAK**, deiguzu
zuzenean denetaz arduratzen gara

·Asegururik **EZ** duten familientzat Usurbilgo
beilatokia **DOAN** izango da gure eskutik

info@funerariagonzalez.es www.funerariagonzalez.es



Zuen publizitatea hemen

☎ 943 360 321
publizitatea@noaua.com

KMDN

hizkuntzak

English courses

- Talde txikiak
- Gazte eta helduentzako ikastaroak
- Cambridgeko azterketak prestatzeko

Matrikulazio epea zabalik!!

irailaren 10etik 14ra


11:00-13:00 eta 18:00-20:00

irailaren 17tik aurrera

16:00-20:00

informa zaitez!

Zubiaurrenea 6 • Tlf 943 371 402



Marije

Arropa denda

Denboraldi berria!

Etxebeste,3 - 943 36 11 06 - USURBIL

Albiste iruditan

Joan dira Atxegaldeko festak, laster hasiko dira Santuenean

Joan dira Atxegaldeko festak ere eta jaiak amaituta, antolatzaileak asteburuak utzitakoak bildu eta txukuntzeko zereginetan murgilduak ibili dira aste hasieran. Giro ederrean joan dira aurtengo auzoko festak ere. Usurbil FT-ko nesken taldea arduratu zen jaiari hasiera emateaz. Herriko neskek futboleko aritzera gonbidatu zituzten.

Kontzertu gauaren ostean, larunbatean hurrei zuzenduriko ekitaldiak nagusitu ziren. Gauean ospatu zen kantu-afarira ere, aurretik eginiko gonbitari erantzunez, izan zen mozorrotuta agertu zenik. Igandean berriz, ohiko txapelketen txanda; tartean, patata tortillarena. Jarraian, aurtengo beste berrikuntza; ipuin kontaketa saioa ospatu zen karpazpian. Haur eta heldu inguratu ziren.



Ipuin kontaketan, adi-adi izan ziren txikiak (eta ez hain txikiak).

Ekitaldiak ikusmina sortu zuen. Traka burrunbatsuekin, akabo Atxegaldeko

festak ere. Hurrengoak, Santuenean irailaren 21etik 23ra.

Laburrean

Mauritaniako kultura ezagutzeko aukera

Mauritaniako kultura, janari ohiturak, musika... ezagutzeko aukera izango dugu larunbat honetan Kalezarren. Goizeko 9:00etan hasi eta arratsaldeko 18:00ak arte, "jaima baten azpian, arku-mearekin egindako couscous-a eta arrainarekin egindako arroza dastatzeko aukera izango da, gutzia Mauritaniako teaz lagunduta". Walata elkarte soziokulturalak antolatu du eguna.

Ostiralean elkarretaratzea Ucinen kutsaduraren aurka

Itaya Gazte Asanbladak deituta, "kontzentrazioa egingo da arratsaldeko 20:00etan Atxegalden, N-634aren parean. Ucin lantegiak kutsatzen jarraitzen duela salatuko dugu eta behar diren neurriak har ditzala eskatuko diogu enpresari arazo honi amaiera eman diezaien. Usurbildar oro-ri deia luzatzen dizuegu bertaratzeko, Usurbil osasuntsuago bat lortzeko".

Gaztelekukoak martxan, My Got txapelketarekin

"Itziarrek izan du bere haurtxoa, jaio da Hodei txikia, Eneritz Menorkan dago eguzkia hartzen eta Saioa Perun, baina lasai Irati eta Ander izango dituzue zain", adierazi digute. Larunbatean My Got txapelketa antolatu dute eta ondoren pic-nic-a (norberak jateko zerbait eraman dezala). DBH 1. ekoak hilaren 15ean hasiko dira baina Ikastolan jasoko dituzte xehetasun gehiago.

noaia

Kultur Elkarte

Bordaberi, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 /// elkarte@noaia.com /// www.noaia.com

Jendaurreko ordutegia: 10:00-14:00 / 16:00-19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Ana Aizpurua.

Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria:

Aizpea Aizpurua.

Publizitatea:

Arantxa Zulaika, publizitatea@noaia.com.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaia.com:

Imanol Ubeda, Aritz Gorriti,

Aizpea Aizpurua.

Banaketa:

Aloña Esnaola,

Olatz Rezola, Iratxe Begiristain.

Laguntzaileak:

Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Aina

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieto, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldua,

Iñaki Larrañaga, Pako Agudo,

Jon Etxabe, Alazne Begiristain,

Denis Elortza, Pello Aranburu,

Xabier Aranburu, Inma Balda,

Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi,

Maialen Unanue, Ugaitz Agirre,

Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia

Torregarai eta Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



Usurbilgo Udala



Euzko Herreria!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Imanol Ubeda

Sarean eta paperean, hitza jaso eta hitza eman

Gaur, Tuenti edo Facebook bidez aritzen gara hango eta hemengo lagunekin. Edota Skype eta Twitter bidez. Aitortuko dizuet azken honek asebetetzen nauela gehien. Jarraitzen ditudan gehienak burutik jota daude eta, tarteka, komenigarria izaten da barre egitea. Maiz, tweet horien bidez arindu dut burua.

Spotify-n entzuten dut musika gehien eta, aukeran, gustuko dudana kantatu bat partekatu dezaket nire lagunekin (eta lagun ezezagunekin). Dela Facebook bidez, dela Twitter bidez.

WhatsApp izan da azken desku-brimendua. Ez pentsa, teknologia kontuetan atzeko tropelean dabilen horietakoa naiz. "Doaneko" mezuen bitartez, txikitako lagun koadrilakoak elkartu gara berriro WhatsApp-i esker. Sesio ederrak izaten ditugu batzuetan. Hori bai,

"kontuba eta zikiña", ia gehienetan.

Klik gutxi batzuen bitartez, gustuko dudana prentsa (bertakoa nahiz kanpokoa) irakur dezaket. Bart gaueko futbol partidaren golak ikusi, maite ditudan musika taldeen bideoak bilatu...

Sakeleko telefono majo batekin, gainera, ez da ordenagailuaren beharrik. *Tarifa laua* ordaindu eta zerrendatu ditudan aplikazio horietan barrena, mundu oso bat dut zain. Badira gailu gehiago, baina horiek ditut atseginen.

Bitxia da. Internet iraultza aurrekoak gara. Baina ia ahaztuta ditugu Internet aurreko egunak. Portaleko *porterora* deitzen genuen, amak balkoitik deitzen gintuen *-igotzeko afaltzera!*, gurasoen etxeko telefonotik lagunentzako telefonotara deitzen genuen, edota bezperatik jartzen genituen hitzorduak, amodiozko gutunak idazten geni-

tuen, oporretan postalak bidali... Ohitura hauek ez dira desagertu, baina gutako askok ahaztu egin ditugu. Telefonoak bere baitan dituen gailuekin ordezkatu ditugu.

Dena den, uste dut gauza inportanteak paperaren bitartez bideratzen direla oraindik: maileguen hitzarmenak, etxeko *eskriturak*, greba deialdi ofizialak, *despidoak* eta lan-kontratuak, bozka ematea... Paperaren indarra handia da oraindik. Noiz arte baina? Auskalo. Batzuk aspaldi iragarri zuten paperaren "desagertzea". Baina gauza garrantzitsuak oraindik *periodikuan* irakurri nahi izaten ditugu. Zerbaitengatik izango da.

Baitez. Laster ala berandu, gutxi batzuk izango gara liburuak paperean eskatzen jarraituko dugunak, goizeko kafea egunkariarekin dastatzeko plazerra aldarrikatuko dugunak...

Garai berrietara egokitzen asmatzen badu, prentsa idatziak bere baitan dituen balio horiek gordeko dituzte. Horregatik gaurkotu dugun eskuartearen ditzun aldizkaria. Diseinu berriekin, aire berri bat eman nahi diogulako gure aldizkari honi. Eta ez soilik estetikoki. Mamian ere pauso bat eman nahi genuke aurrera. Hitza jaso ezezik, hitza eman nahi genieke herritarrei, herriko taldeei, herriko eragileei. Beste gauza batzuen artean, hori eskatu digute eta. Aldizkarirako jantzi berria enkargatu aurretik, hausnarketa bat jarri genuen martxan udaberri partean. Iradokizun eta proposamen ugari jasogenituen eta horiek guztiak islatu nahi genituzke hemen.

Zuek bezala, guk ere denbora beharko dugu diseinu berrira egokitzen. Baina ea orain arte egindakoa hobetzen dugun. Sikiera horretan asmatuko bagenu...

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Maialen Unanue | Luis Aranalde | Ugaitz Agirre | Nerea Zinkunegi | Joxe Piñas | Unai Agirre | Idoia Torregarai

Ika-Mika

Zubietako Herri Batzarrak atez-ateko bilketa ezartzeko erabakia hartu du

Herri Batzarra zubietarrak ordezkatzeko dituen administrazioa da, haur-teskundeetako emaitzak kontutan hartuta izendatua, Usurbil eta Donostiako udaletxetako idazkariek aktan jasotzen duten bezala.

Gu Zubietako herritarren ordezkariak gara, izen abizenekin, zerrenda irekian hautatuak.

Zubietako Herri Batzarreko kideok, PNV, BILDU, PSOE, eta PP-koek ez bezala, ez diogu inongo alderdiari disziplinarik zor.

Zubietako Herri Batzarren egin-kizuna, gure herriarentzat lan egitea da. Gure lana gainera, altruista da, horrek ematen digun askatasunarekin.

Aurrekoa kontutan izanik, Zubietako Herri Batzarrak, bertako familien artean hondakinak atez-ate biltzeko eskaerak jaso berri ditugu. Agerturiko datuak aztertuta, Zubietako familien %67,5ek gaikako bilketa erabatekoa izan dadin babestu du, bereziki atez-ateko bilketa beza-

la ezagutzen den sistema. Ondorioz, bi udalerriei honakoa adierazi eta eskatzen diegu:

Donostia zein Usurbilgo hiritar diren zubietarrei hondakinak atez-ate jasotzea.

Herri Batzarrak Zubietako hondakinak atez-ate biltzeko eta kudeatzeko proiektua landuta daukagu, eta bi udalerrietan aurkeztuta ere.

Proiektu honen barruan, ontziarriak, papera eta kartoia eta errefusa atez-ate bilduko dira, eta organikoak

autokonpostaje eta konpostaje komunitarioaren bitartez Zubietako ongari izango da.

Herri Batzarrak, atez-ateko bilketa ezartzeko erabakia hartu du. Ondorioz, proposamen hau aintzat hartuko ez balitz, Herri Batzarrak, Zubietako herritarren ordezkari legal eta demokratikoa denez, aipatu bilketa sistema martxan jarriko du azaroaren 1etik aurrera.

Zubietako Herri Batzarra

Ika-Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. Ale bakoitzean ez dira bi Ika-mika baino gehiago argitaratuko. Ika-mika bat baino gehiago iristen bada, NOAUA!k idatzi horietako bat hurrengo ale batean argitaratzeko eskubidea izango du. NOAUA!k ez du bere gain hartzen Ika-Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Hurrengo alea: irailak 14. Idatzia ekartzeko azken eguna: irailak 10.

Sekañako lanak burutzeko epea ez du bete enpresa eraikitzaileak

O bren exekuzio epea ez bete-tzeagatik, Sekaña eremuko obrak gauzatzen ari den Bardenara Obras Civiles y Marítimas S.L. enpresari, "uztailaren 14tik hasita obraren harrera akta sinatu arte" zigorra jartzea erabaki zuen udalbatzak joan den uztailaren 27an burutu zen osoko ohiko bilkuran. Erabakia Bildu eta EAJ-PNV-ko ordezkarien aldeko botoekin atera zen aurrera. Hamaikabatek abstentziora jo zuen.

Udalbatzak harturiko erabakia modu honetan zehazten da: "berandutzen diren egun bakoitzeko 144,55 euroko zigorra jartzea, eta gaurtik aurrera ordaintzen zaien zertifikazio bakoitzean, hila-bete horri dagozkion egunen arabera zigorra ezarri eta ordaindu beharreko kopurutik deskontatzea".

ESKUALDEKO ENPLEGU PLANA

Eskualdeko Enplegu Plana dinamizatze-



Isuna ezartzea erabaki du Udalak.

ko eskualdeko ordezkari gisa, Andoaingo alkate Ana Karrera izendatzea proposatu da. Joan den maiatzaren 29an sinatu zen, Sustapen Ekonomiko eta Enplegu gaitan eskualde mailako lankidetzarako protokoloa. Eskualdeko Enplegu Planak dinamizatzeko elkartutako udalderriek ordezkari bat izendatu beharra zuten. Aipatu moduan, Andoaingo Udaleko alkateak Donostia (Mendebaldea) ordezkatzeari proposatu da.

Udal langileen lan baldintzak akordio batean jaso dituzte

Usurbilgo Udaleko langileen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa onartu zuen udalbatzak, uztailaren 27an burutu zen osoko ohiko bilkuran. Gobernu taldeak aldeko bozka eman zuen. Hamaikabat eta EAJ-PNV abstentitu ziren. Akordioa aste-bete lehenago, uztailaren 19an sinatu zuten, "Usurbilgo Udal gobernuaren ordezkariak zein langileen ordezkariak eta atal sindikalek". 2015eko abenduaren 31ra arte "aplikagarri izango zaizkien baldintzak" arautzen ditu lan hitzarmen berriak.

Iazko Kontu Orokorra, behin betiko onartua

Usurbilgo Udalaren 2011 ekitaldiko Kontu Orokorra behin betiko onartu zuen udalbatzak, joan den uztailaren 27an burutu zen osoko ohiko bilkuran.

Horrekin batera zera erabaki zen, "Kontu Orokorren Espedientea Herri Kontuen Euskal Epaitegiari igortzea, dagozkien azterketak egiteko".

Bilduren aldeko bozkekin onartu zen erabakia. EAJ-PNV eta Hamaikabateko ordezkariak abstentitu ziren.

Presoen eskubideen aldeko pankartagatik, Udala auzitara

Uztailaren 27an burutu zen osoko ohiko bilkuran berri eman zenez, "Administración General del Estado-Delegación Gobierno Vasco-k Donostiako Administrazioarekiko Auzietako 1 zenbakiko epaitegian auzi-errekurtsoa tartekatu du" Usurbilgo Udalaren aurka, udal-txeko fatxadaren "Euskal Presoak Euskal Herrira" goiburua daraman pankarta jarri izanagatik. Udalak auzi horretan parte hartzea erabaki du, "Udal honen interesak defendatuz" eta baita "dokumentazioa epaitegira bidaltzea" ere. Honez gain, auzi honetarako Udala ordezkatzeko duten abokatu eta prokuradoreak izendatuak dituzte.

Garbigune berria erabiltzeko hitzarmena onartu du udalbatzak

"Garbiguneak erabiltzeko San Markoko Mankomunitatearen eta kide diren udalen arteko hitzarmen esparrua" izeneko hitzarmena onartu zuen udalbatzak, uztailaren 27an burutu zen osoko ohiko bilkuran. Testua gehien-ego osoz onartu zen, gobernu taldeko kideen aldeko botoekin. Hamaikabat eta EAJ-PNV udal taldeek abstentziora jo zuten. Onarpenaren baitan, udalaren izenean Mertxe Aizpurua alkatea ahalmentzen da, Atalluko instalakuntza berriak erabiltzea helburu duen hitzarmena sinatzeko.



txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

JE **JON ELORZA**
IGELTSERITZA
OROKORRA
Obrak eta erreformak
661 804 688
San Esteban 5, boxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

Ikastaro eskaintza zabala, 2

Einean, Hitz Aho zein Ahalduntze Tailerrek egin duten eskaintza oparoa da oso

Heldu da iraila. Hastear dugu ikasturte berria eta ikasketa edo lan orduetatik kanpo, aisialdi tartea zertan eman erabakitzeko unea da. Herriko eragile desberdinek, eskaintza zabala prestatu dute aurtengorako. Bada non aukeratu.

EINEAN GURASO ESKOLAN IDEIA UGARI

Einean Guraso Eskolak 2012-2013 denboraldirako eskaintza ezagutzera eman du. Herritar orori zuzenduriko hamar ikastaro antolatu dituzte guztira. Izen emateko epea zabalik dago, irailaren 15era arte. Ikastaro bakoitzari buruzko argibide gehiago, jarraian:

■ Laboreak

Noiz: astean behin.
Iraupena: urria-ekaina.
Irakaslea: Juani 943 46 50 34.

■ Yoga

Noiz: astean behin.
Iraupena: urria-ekaina.
Irakaslea: Sebas 605 72 28 25.

■ Masajea

Noiz: astean behin.
Iraupena: 4 hilabete.
Irakaslea: Sebas 605 72 28 25.

■ Kartoizko altzariak

Noiz: astean behin.
Iraupena: urria-ekaina.
Irakaslea: Mamen 626605007.

■ Pintura

Noiz: astean behin.
Iraupena: urria-ekaina.
Irakaslea: Susana 609413883.

■ Eskulanak

Noiz: astean behin.
Iraupena: urria-ekaina.



Hitz Ahoko kideek animo handiarekin hasi dute ikasturte berria.

Irakaslea: Susana 609413883.

■ Idazketa kreatiboa

Noiz: astean behin.
Iraupena: urria-ekaina.
Irakaslea: Idoia 629 48 28 74.

■ Sukaldaritza

Noiz: astean behin.
Iraupena: 6 aste.
Irakaslea: Igor 670 41 02 73.

■ Memoria lantzen

Noiz: astean behin.
Iraupena: urria-ekaina.
Irakaslea: Saioa 687 86 56 58.

■ Sabel dantza / Hip Hop

Noiz: astean behin.
Iraupena: urria-ekaina.
Irakaslea: Uarda 637 25 68 51.

HITZ AHO ELKARTEA, GURASO TAILERRAK

Udarregi Ikastolako Hitz Aho Guraso Elkarteak, bi ikastaro berri programatu ditu ikastur-

te honetarako. Saioak Udarregi Ikastolan burutuko dira. Ikastaro hauetan, izen emateko epea irailaren 19tik 26ra luzatuko da. Hemen, zehaztasun gehiago:

■ “Guraso eta seme-alabekin elkar ulertzen”

Bideratzailea: Nerea Mendizabal, psikopedagogo eta haur masajeko orientatzailea.
Noiz: ostegunak, 17:00-18:30.
Nori zuzendua: Haur Eskola eta Haur Hezkuntza (0-6 urte)/ Lehen Hezkuntza 1-4.
Saioen edukia:
Urriak 4, azaroak 8: “Komunikazioa lantzen”: Guraso eta seme-alabekin elkar ulertzea, komunikatzea ere ikasi daiteke.
Abenduak 13, urtarrilak 10, otsailak 7: “Guraso izaten

“Trailaren 15ean amaituko da Einean Guraso Eskolan izena emateko epea”

ikasiz”: Nola hitz egin entzun diezaguten?, nola entzun hitz egin ezaten?.

Martxoak 7, apirilak 11: Ariketa praktikoak: egunerokotasunean zailantza eta gatazkei aurre egiteko moduez arituko gara.

■ “Nerabezaroa eta komunikazioa”

Bideratzailea: Joxe Amiama, psikopedagogo.
Noiz: astearteak, 17:00-18:30.
Nori zuzendua: LH 5-6 eta DBH.

Bi ikastaro hauen zehaztasun gehiago Udarregi Ikastolan eskura daitezke.
Izen-ematea: irailaren 19tik 26ra, hitzaho@udarregi.com
Kuota: 30 euro. Kontu zenbakia: 3035 0140 33 1400024098.

2012-2013 ikasturterako

Zehaztu izen abizenak eta haurren izena eta kurtsoa.

EMAKUMEENTZAKO AHALDUNTZE IKASTAROAK

Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Sailetik, iazkoari jarraituta, ahalduntze ikastaroak antolatu dituzte. Izen emateko epea zabalik dago irailaren 17ra arte, bertara deituta, 943 37 71 10 telefono zenbakira, edota parekidetasuna@usurbil.net helbidera email bat bidalita. Doako ikastaroak dira. Honez gain, emakumeei zuzenduriko pala ikastaro berri bat ere antolatu da.

■ Zoru pelbikoa indartzea:

Noiz: Astelehena, 18:30-20:00.

Hasiera data: irailak 17.

Bideratzailea: Saioa Baena fisioterapeuta.

Hizkuntza: euskara.

■ Asertibitate eta gatazken konponketarako tailerra:

Noiz: ostegunak, 14:30-16:30.

Hasiera data: irailak 20.

“Ahalduntze ikastaroek harrera ona izan zuten; aurten ere antolatu ditu Udalak”

Bideratzailea: Pepa Bojo psikologoa.

Hizkuntza: erdara.

■ Ahalduntzea eta tratu onak:

Noiz: ostegunak, 17:00-19:00.

Hasiera data:

irailak 20.

Bideratzailea: Pepa Bojo psikologoa. Hizkuntza: erdara.

■ Emakumeen pala ikastaroa:

Helburua: emakumeak kirolaz gozatzea eta palan trebatzea.



Urrian hasiko da pala ikastaroa (Argazkia: usurbil.net)

Nori zuzendua: adin guztietako emakumeei. Ez da beharrezkoa inoiz palan aritu izana.

Hasiera data: urria.

Emakumeentzako pala ikastaroaren inguruko informazio gehiago jaso nahi duenak, edota ikastaroan izena eman nahi duenak, Oiardo kiroldegira jo beharko du. Telefonoz ere eskura daiteke informazio gehiago, Usurbilgo Kirol Patronatura deituz, 943 37 24 98 zenbakira hain zuzen. Pala ikastaroa euskaraz eskainiko da.

Ikastaro ugari Santuenean

Urrian hasiko diren arren, orain da izena emateko garaia. Taldeak, gehienez, 10 kidez osatuko dira. Ikastaroak urrian hasi eta 2013ko ekainean amaituko dira. Antolatzailea: Santuenea Kultur Elkarte.

YOGA

ASTEARTEA-OSTEGUNA

■ Asteartetan hiru txanda izango dira aukeran: 16:00/17:30 lehenena, 18:30/20:00 bigarrena eta 20:30/22:00 hirugarrena.

■ Ostegunetan, aldiz, bi txanda hauek: 16:00/17:30 lehenena, 20:30/22:00 bigarrena.

MEDITAZIOA

OSTEGUNETAN

■ "Meditazioa-mindfulness", delako ikastaroa. Ostegunetan, arratsaldeko 19:00etatik 20:00etara.

ZORIONTASUNA LANDUZ

URTE OSOAN

■ Ikasturte osoan luzatuko da zoriontasuna lantzeko ikastaroa eta hau ere urrian abiatuko da.

INFORMAZIOA

■ Informazio gehiago jasotzeko edota izena emateko, bi telefono zenbaki hauetara jo daiteke: 670 027 731 / 637 413 691 (Juanjorengatik galdetu).

Matrikulazio epea irekia euskaltegian

Izen emateko euskaltegian bertan, Kale Nagusia, 45 behean: astelehnetik ostiralera, 11:00-12:00 artean, edo 18:00-20:00 artean. 607 609 379 telefono zenbakira deitu edo hona idatzi: usurbil@aek.org

Hiri baratzeen inguruko ikastaro berria antolatu du Usurbiltzen-ek

Balkoi eta terrazetan baratzak lantzeko ikastaroa antolatu du Usurbiltzen Elkarteak, datozen asteotarako; hiru saio guztira, irailaren 15, 29 eta urriaren 6an Santuenean. Hiru larunbat hauetan, goizez burutuko da ikastaroa; 10:00-13:00 artean.

Interesdunek izen emateko, email bat bidali behar dute honako helbidera:

baratzeikastaroa@gmail.com

■ Ogi ikastaroa

Baratzeen ingurukoaz gain, ogia egiteko ikastaroa ere antolatu du Usurbiltzenek, irailaren 22rako. Gure web orrialdera bidali duten mezuak berri ematen duenez, saioa goizez izango da, 9:30-14:00 artean, Agerialdeko jangelan. Izena eman nahi duenak, deitu dezala zenbaki honetara: 608 566 683 (Beñat). Ikastaroan parte hartzeko 30 euro ordaindu beharko dira.



Ogia egiteko ikastaroa irailaren 22an egingo da.

“NOAUA!k udalerrian oso le

Olatz Altuna elkarrizketatu dugu, NOAUA! aldizkariko lehen zuzendaria

500. zenbakira heldu da NOAUA!. Irailaren 7ko aleetako bat, sorreran eta lehen urteetan herri aldizkari honek zuzendari izan zuen Olatz Altunak jasoko du. 16 urte bete dituen astekariak hitz egin, 1996. urtetik aurrerako oroitzapenak berri eta aldizkariak gaurdaino osatu duen ibilbideaz hitz egiteko berarekin bildu gara. Zenbaki hau ilusioz hartuko zuela adierazi dio Altunak, NOAUA!ri eskaintako elkarrizketan.

Zein da NOAUA! aipatu eta burura datorkizun lehen oroitzapena?

Burura etortzen zaidan lehen oroitzapena da, hasierako ale haietan, Correoseko lokal zahar hartan, herriko jendea ilusio handiarekin lanean. Oso oroitzapen gozoa daukat zentzu horretan.

Nola bizi izan zenuen NOAUA!ren sorrera?

Garai hartan ikasketak bukatzen ari nintzen. Kanpoan egon nintzen, Italian bukatu nuen karrera. Herrira etorri eta



1996ko Sagardo Egunean, NOAUA!ri babes ematen.

berehala, aldizkari bat sortzeko proiektua zegoela esan zidaten. Bi helburu garrantzitsu zeuden; euskara eta herria. Herria egitea, horrek suposatzen duen guztiarekin. Herria egitea, gure arteko elkar ezagutza eta aldizkari txiki bat nolabait herriko kontuekin. Eta euskararen normalizazio bidean ira-

kur zaletasuna bultzatzea. Proiektua azaltzeko udaletxean egin zen deial-

“Denbora gutxian, erreferentzialtasun handia lortu zuen NOAUA! aldizkariak herrian”

di zabal batera gonbidatu ninduten. Jende asko joan zen pleno aretoan egin zen bilera. Bertan taldetxo bat sortu zen, eta pixkanaka hasi ginen. Oso oroitzapen polita dut. Hasieran dena zegoen egiteko, berria zen. Bagenituen erreferentzia batzuk, inguruan ere herri aldizkariaren fenomeno asko hedatu zen. Gure ukitu propioa ere oso argi genuen, izenean nabaritzen da, izena aukeratzeko egin zen prozesu guzti hartan, hori ere oso polita izan zen. Asko ikasi nuen eta oso oroitzapen polita dut.

“Pixkanaka euskara elkartea ere sustatuz joan ginen”

NOAUA! 1996an jarri zen martxan NOAUA!. Lehen etapa hartako zuen erronkak zeintzuk ziren?

Olatz Altuna. Gure helburua aldizkari txukun bat egitea zen, herriari produktu majo bat ematea hizkuntza asko zainduz, adin guztietakoak irakurtzeko produktu bat izatea, gai erakargarri eta herrikoekin... Gure amona ikusten nuen NOAUA!

irakurtzen, eta asmatzen ari ginen. Amonak ez zuen inoiz euskaraz irakurri.

Hasiera batean, fokua aldizkariaren bazegoen ere, pixkanaka euskara elkartea ere sustatuz joan ginen. Hori aldizkari egon nintzen. Euskara elkar-teak ere hartu zituen zenbait ekimen, deialdiak, liburugintza, argitalpenen ildoak dela eta.

Gero kultur elkartea sendotzen

joan ginen. Gurekin batera, gero gainera, euskara elkar-teen Topagunea ere sortu zen. Hasiera haietan, NOAUA!k ere egin zuen bere ekarpena. Hasierako bileretara neroni joan nintzen ordezkari eta orduan bai ikusten zen, fenomeno handi-ago baten parte ginela baita ere.

Gaur egun, izugarri sendotu da hori guztia, baina hastapenetan ia dena zegoen egiteko.

Bilera hartatik, aldizkariko lehen zenbakia kaleratu arte, zer lanketa burutu zen?

Bilera hartatik momentuan talde bat sortu zen. Handik gutxira, ia zuzendari izan nahi nuen proposatu zidaten. Proiektu polita zen, ikusten nuen talde lan handia zegoela eta horrek animatu ninduen. Correoseko lokala egokia iruditu zitzaigun eta moldatu beharra zegoen.

“leku garrantzitsua lortu du”



“Banaketa arloan izugarrizko esfortzua egin zen”

“Udalaren laguntza ere garrantzitsua izan zen”, adierazi digu Olatzek.

Taldea osatzen joan ginen; publizitatea landu eta bilatuko zutenak, maketatuko zutenak, zuzentzaileak, kolaboratzaileak... Jende asko hasi zen. Gogoratzen naiz, aldizkaria inprentara eraman bezperako gaua oso luzea izaten zela, nola elkartzen ginen

hamarrak aldera. Alea bukatu eta guztia irakurtzen genuen; guk eduki aldetik osatu, zuzentzaileak hizkuntza aldetik... Lehenengo alean erabaki garrantzitsuak egon ziren: etxe guztietara banatu edo ez, maiztasuna, karakterizazioa, eduki aldetik zer gai sartu, no-

la... Erredakzio kontseilu bat zegoen. Hasieran, bilerak oso luzeak izaten ziren. Inertzia hartu arte behar zen. Oso giro ona zegoen, eztabaida oso interesgarriak izaten genituen. Denbora gutxian, eta hori izan zen nik uste asko animatu gintuena denoi, erreferentzialta-

sun handia lortu zuen aldizkariak herrian.

Zer giro zegoen lehen alea kaleratu aurreko garai hartan? Izena aukeratzeko ere parte hartze prozesua ireki zenuten?

Hasieratik, 0 alea eskutan izan arte, proiektu bat, aldizkari bat zetorrela zabaldu genuen. Jada hasieratik horretan asmatu zen, proiektua hasieratik zabalitzen. Tartean izena dela eta ere bai, ze izen jarri atal bakoitziari... Berehala gertutasuna lortu nahi genuen, “Markesaneko petriletik” eta halako izenekin. Erreferentzialtasun hori lortu zuen epe motzean, horretan asmatu zelako, parte hartzea sustatzen. Erreferentzialtasuna gaur egun ere argia da, zerbait aipatu nahi bada edo informazioa jaso nahi bada NOAUA! funtsezkoa da. Klabe batzuk egon ziren hori lortzeko; batetik gertutasuna, bestea etxe guztietara banatzea izan zen. Banaketan izugarrizko esfortzua egin zen hasieratik. Eta hor ere asmatu zen. Halere, gure kezka ere bazen, denek jasotzen badute zergatik bazkide egin? Baina bazkide eta kanpaina indartsuak egin ziren eta lortu zen. Udalaren laguntza ere garrantzitsua izan zen.

GEROA, INTERESGARRIA 500 zenbaki eta 16 urte bete ditu aldizkariak. Nola baloratzen duzu NOAUA!-k gaur arte izan duen eboluzioa?

NOAUA!-k Usurbilen, udalerri oso leku garrantzitsua duela ikusten dut eta eman dituen saltoetan asmatu dela esango nuke. Nolabait, gizarteak ekarri dituen aldaketetara egokitu da eta hori garrantzitsua da. Horretarako gaitasuna izan behar da. NOAUA!-k geroa oso interesgarria duela ikusten dut.

NOAUA!, “herria egin eta komunitate hori sendotzeko” tresna

NOAUA!ren sorrerako nortasun hark bizirik jarraitzen duela uste duzu?

Olatz Altuna. Nik uste dut baietz. Hasierako erronka horiek hor daude. Esaten genuen, nolabait herria egitea zela helburuetako bat, hori soziolinguistikan komunitate trinkotzea deitzen diogu. Azkenean aldizkariak ezaugarri asko betetzen ditu; herria egin, eta komu-

nitete hori sendotu eta egitea. Komunitate erakargarri bat egin baita ere erdal munduarentzat, euskalduna izan gabe hurbiltzeko gogoia duenarentzat. Nik uste dut erakusten duela mundu, komunitate interesgarri bat. Hori aldizkariak helburu zuen duela 16 urte eta orain ere bai. Bere garaian bi inkesta egin ziren, aldizkariarekin banatuta. Erantzunetan jaso

genuenez, erdaldun jendeak irakurtzeko ohiturarik ez zutenak, pixkanaka NOAUA! aldizkariarekin saiaturen zirela.

Halako detaileak dira interesgarriak ikusteko, bai herria egiten dugu, baina ez bakarrik euskaldunentzat, baizik eta gainerako guztientzat gerturatzeko tresna interesgarria da, bai lehen eta bai orain.

Kooperatiba ohia bota arte

Babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko asmoa du Udalak zonalde horretan

Kalezarrera bidean, garai batean Alkartasuna Nekazal Kooperatibaren gunea zena Usurbilgo Gaztetxea da egun, abuztuaren 25ean herriko gazte talde batek aipatu instalakuntzak okupatu zituenetik. Gunea txukundu eta lehen ekimenak ere burutu ostean, ordutik, batzarraren bidez zer pauso eman aztertzen ari dira. Udalak bertan Babes Ofizialeko Etxebizitzak eraiki asmo dituela gogorarazi du prentsa ohar bidez. Gaztetxeo kideek, kooperatiba ohia bota artean bertan jarraitzeko asmoa dute. Argi diote kaleratu duten lehen komunikatuan: "Usurbilek gaztetxea behar du, autogestionatua, eta ez bada oraingo eraikinean, beste batean".

Gaztetxeo kideek abuztuaren 25ean, "sindikatuaren" egoitza ohia okupatu eta gutxira, Twitter bidez hala eman zuten albistearen berri: "Iritsi da Usurbilen Gaztetxea! 16:00etan ekingo diogu garbiketari. Hurbildu auzolane-ra!". Abuztuko azken larunbat eguerdirako triki poteo berezia antolatua zuten Kaxkoan. Giro ederrean burutu zen ibilbidea, gerora garai bateko kooperatibaren egoitza zuen helmuga. Instalakuntzak okupatu eta gunea txukundu ostean, gau hartan bertan lehen ekimenak ere antolatu zituzten; "bertsio gaua, karaokea... animatu Usurbilgo Gaztetxe berriara hurbiltzera, ateak zabalik dituzue eta!" zabaldu zuten sare sozialen bidez.

Ordutik azken aste eta erdi



Okupazioa baino lehen, kalejira egin zen herrian (azalekoa eta honako argazkia: Ibai Arrieta).

honetan, aurrerantzean zer pauso eman erabakitzeko batzarrak burutu dituzte gazteek egoitza berrian, modu asanblearioan funtzionatu nahi baitute. Baita zenbait ekimen ere. Berez, sindikatuko egoitzaren eraikina behera botatzekoak dira, bertan Babes Ofizialeko Etxebizitzak eraiki asmo baitituzte. Hain zuzen, Gaztetxe berriari lotuta, Udalak kaleratu duen prentsa oharra jasotzen duenez, etxebizitza proiektu "hau lehenbailehen gauzatu ahal izateko tramite guztiak betetzen ari da Udala". Egoera honi irtenbide bat bilatzeko ateak irekiak dituztela adierazi dute gobernu taldetik.

Sindikatu zaharra behera bota artean, Gaztetxeo kide-

ek bertan jarraitzeko asmoa dute eta herritarrak gaztetxeo proiektuan parte hartzera deitzen dituzte. Argi diote; eraikina ez da helburua, "gizarte hau eraldatzen lagunduko digun tresna garrantzitsu bat baizik".

"ERAIKIN HUTSEI AURRE EGITEN"

Sindikatuaren egoitza ohia okupatu izana lerrootan azaldu dute Gaztetxeo kideek: "Jada urte bete baino gehiago da Alkartasuna Nekazarien Kooperatiba egoitzaz aldatu zela eta eraikin hau hutsa geratu zela. Bien bitartean, Ugartondo industrialdea erosi zuten konструкторak ere ez dute eraikitzen hasteko interes irmorik aurkeztu. Horrelako egitasmoak aurrera eramatea etxe eta eraikin hutsei aurre egiteko bide bat dela uste dugu, etxe huts bat gutxiago egoteaz gain gaur egungo

etxebizitza ereduaren aurka egiteko forma eraginkor bat iruditzen zaigu. Honez gain, eraikin hau inongo instituzioen mende ez egoteak, inork baldintzatu gabeko eta erabateko autokudeaketa izango duen gunea izango dela ziurtatzen du".

SALAKETAREN AURREAN, NEGOZIAZIOA

Herritarrek autokudeatuko duten gunea ireki baten beharra zegoela aipatu dute, azken hileotan gazte taldeak burutu duen parte hartze prozesuan agerian geratu zenez. Hain zuzen, herritarrei eta eragileei eginiko elkarrizketen bidez, Usurbilen gaztetxe baten beharra sumatu dela ondorioztatu dute.

Usurbilgo beharretara egokitua egongo dena, autokudeatua, askea, irekia, herri eragileen elkarlana eta komuni-

Eraikina ez da helburua diote, "gizarte hau eraldatzen lagunduko digun tresna baizik"

gaztetxean segi nahi dute



Bloga zabaldu dute gaztetxeok: usurbilokupatu.blogspot.com.es (argazkia: Ibai Arrieta).

kazioa saretuko dituen. Alkartasuna egoitza ohiaren okupazioaren aurrean, gune-

aren gaur egungo jabeak salaketa aurkeztua du. Egoerari irtenbide bat bilatzeko negoziat-

zio bidea zabalik dago, gazteen, Udalaren eta jabeen artean.

“Udalak ez du okupatu den lokala egokitzen ikusten gaztetxearen proiektua garatzeko”

Okupazioaren aurrean, Usurbilgo Udalak honako prentsa oharra kaleratu zuen. Osorik jaso dugu orriotan. Bertan adierazten denez, “okupazio honek sortu duen egoerari berehalako irtenbidea eman nahi dio Udalak”: “Lokalen okupazioa ez da azken garai hauetan gertatzen ari den fenomeno isolatu bat. Gazteek dituzten beharrek zuzenean lotzen den mugimendua da, Euskal Herrian nahiz Europa osoan ematen dena. Usurbilgo gazteek ere, beren egitasmoak garatzeko beharrezkoak dituzte espreski horretarako baliatuko diren lokalak. Eta garai honetan, Udalak atek irekiak ditu gazteekin egoera hau aztertzeko eta irtenbideak bilatzeko.

Duela egun gutxi Ugartondoko eremuan dagoen lokal bat okupatu zuten herriko zenbait gaztek. Udalak bertan etxebizitzak eraikitzeko asmoa du; erabateko lehen tasuna emanaz Babes Ofizialeko 48 etxebizitzari. Proiektu hau lehenbailehen gauzatu ahal izateko tramite guztiak betetzen ari da Udala. Abuztuaren hasieran gauzatu zen birpartzelazio proiektuaren behin betiko onarpena. Beraz, Udal Gobernu honen helburua da etxebizitzak lehenbailehen eraikitzea, usurbildarrek, eta bereziki gazteek dituzten premiazko behar sozialei erantzunez. Gure nahia eta konstruktoreena etxe hauek ahalik eta azkarren eraikitzea da. Beraz, Udalak ez du okupatu den lokala egokitzen ikusten gaztetxearen proiektua garatzeko.

Okupazio honek sortu duen egoerari berehalako irtenbidea eman nahi dio Udalak. Horretarako, alkattea gazteekin eta eraikinaren jabeekin adostutako irtenbide bat emateko saiakera egiten ari da”.

Gaztetxearen prentsa-oharra

Herrian egindako galdeketek erakutsi zuten bazegoela gaztetxe baten nahia, baita beharra ere, eta, dakizuen bezala, pasa den larunbatean (abuztuak 25) sindikatu zaharra okupatu genuen. Egiten ari garenen inguruan sor daitezkeen zalantzak argitzeko, egindako batzarretan adostutakoak herritar guztiei helarazi nahi dizkiogu.

Lehenik eta behin, okupazioaren lehen orduetan gertatutakoa azaldu nahi dugu: Eguerdiko triki-poteoaren ondoren eraikinera sartu eta goitik behera txukundu genuen Usurbilgo gazte askoren artean. Garbiketen ostean, inaugurazio lunch-a egin genuen. Gau aldera, bertsiokontzertua hastekotan ginela, ertzaintzaren bisita jaso genuen, jabeak salaketa jarri zuela adieraziz.

Egoera honen aurrean, udalbatzako hainbat pertsona gerturatu ziren gugana, eta beraiekin hitz egin

ostean, alde egin zuten. Sindikatu zaharra okupatu geroztik denbora gutxi pasa da, eta zalantza handiak daude, oraingoz, epe motzera gerta daitezkeenarekin. Okupazioaren ondorengo orduetan jakin genuen lehenago edo beranduago okupatutako eraikineko lurretan etxebizitza proiektua egin egingo zela; nahiz hasiera batean, esan bezala, leku honen aukeraketa egitean, bertan egingo zen proiektua geldirik zegoela uste genuen. Gaztetxeak, alde horretatik, ez du inolako oztoporik jarriko proiektu hori aurrera atera dadin.

Usurbilek gaztetxea behar du, autogestionatua, eta ez bada oraingo eraikinean, beste batean. Esan bezala, ez dugu inolako liskarrik nahi, prest gaude eraikinaren arduradunekin akordio batetara heltzeko; obrak hasi bitartean behintzat, eraikinari ahalik eta probetxu handiena atera eta gaztetxe dinamika

sortzeko nahia dugu. Gaztetxea okupatzea ITAYaren ekimena izan bazen ere, garbi utzi nahi dugu bertan gabiltzanok ez garela talde horretako jendea bakarrik. Gauzak beste modu batera egin daitezkeela pentsatzen dugun usurbildarrek gara, azken finean. Herritik sortutakoa herriari eskaintzea, hori da gure helburua.

Gaztetxeak herritar guztientzako tresna izan nahi du, herriarentzat lan egingo baitugu. Guztion parte hartzeak emango dio bizia gaztetxeari, eta herriari. Herriko taldeei ere osatu berri dugun asanbladan parte hartzeko gonbita luzatzen diegu, guztion elkarlana dela iruditzen baitzaigu biderik zuzenena. Gaztetxeak herritar guztion bilgune izan nahi du, eta horrek guztion parte hartzea eskatzen du. Aprobetxatu dezagun aukera hau indarrak metatu eta bestelako herri-eredua lortzeko!

Udako txokoak, iruditan

Ikasleak egunotan itzuliko dira liburu artera, amaitu zaie udako oporraldi luzea. Haietako askok hileotako oroitzapenen artean ondo gordeta izango dituzte, euren zuzenduta antolatu diren aisialdiko ekimen desberdinak. Haur eta gaztetxo ugarik parte hartu du eta, udan Aginagan eta Zubietan antolatu diren txokoetan, baita Kaxkoan Udalak eta NOAUA! Kultur Elkarrekin antolatu duten Udajolas ekimenean ere. Horren erakusgarri, irudiok.



Zubietako udako txokoetako gaztetxoak eta begiraleak.



Aginagako txokoetan ere primeran ibili ziren, kantu eta jolas.



Argazkian agertzen direnek uztaila osoa eman zuten Udajolasen.



Alex Tello

TXERRIKI TALDEKO KIDEA

2012-09-07

Herriko plazan maiz egoten da zernahi, beti egoten da norbait. Bertan, egunero haurrak aurki daitezke. Haurrak jolasean euren guraso edo zaintzaileen begiradapean. Askotan, gazteak ere pilotan aritzen dira. Egun osoan zehar plazan jendea ikus daiteke. Kalean bueltaka dabilen jendea, etxetik kalera edo kaletik etxera, edo, liburutegia, taberna, bankura edo erosketak egitera doan jendea. Norberak jakingo du zergatik pasatzen den edo ez den herriko plazatik.

Iraileko larunbat hartan plazan ekitaldia zegoen. Herritar ezaguna hurbildu zen zera galdetzeko: "Gaur zer bait al dago?". Lagunak baiezko erantzuna jaso zuen: "Kale antzerkia dago eta ikusgarria izango da". Besteak zera erantzun zuen: "Ba ez nekien ezer zegoenik". Egun batzuk lehenago, ekintza iragartzen zuten kartelak kale, taberna eta abarretan jarri ziren. Herriko astekarian eta hileko Kultur Agendan nabarmen agertzen zen ere. Beraz, informazioa etxe eta esku guztietara iritsi zen. Orduan? Deialdia iritsi zitzaionalarik, hartzailea ez zen mezuaz jabetu.

**GOGOAK
ETA GOSEAK PIZTU**

Lagun honek agian ez zuen antzerkia gustukoa izango? Antzerkiak zer nolako ustea izango ote du? Auke-

Herritarrok, badator 4. Topa Eszenika

**"Gure bide galduak" antzezlanaren 29an ikus ahal izango dugu.**

ra bat baino gehiago emateak merezi du, guztiak ez baitira berdinak. Gakoa, antzerkia gehiagoetan ikus teko gogoak pizten duten lanak ekartzean datza? Gainerako diziplina artistikoekin berdin, antzerkia, dantza, musika, poesia, pintura, argazkia... Aukera eman behar zaie eta herritarren gogoak eta goseak piztu. Telebista bidez ez baita gogoak hobe elikatuko. Kalekoa, zuzenekoak ezagutu eta dastatzea aukera on bat da. Probatu eta gustukoa izan artean geratu, girotu eta egon.

Herritarrak beharbada, ekitaldira bertaratzeko beste lagun baten gonbitea edo bultzada beharko zuen? Horra, ahoz-ahokoaren indarra!

Hamaika dira ekitaldietara joa-

ten ez direnak. Ezin dutelako, ordu-tegiak eta hainbat zereginen baldintzagatik. Ados. Baita ere badira beste ekitaldietara joaten ez direnak, beste horiek antolatutakoak direlako! Herritarren arteko aurreiritzi edota diferentziengatik ote? Horrelakoek zer zerikusi dute Bizkaitik etorritako artistarekin?

BATZEKO APROPOSA

Ekitaldiak merezi badu eta joan ahal bada, bertaratzeko baina aukera hoberik ez da. Herritarrak batzeko bide edo gune aproposa izan daiteke. Elkarrekin partekatzeko esperientzia bat. Beraz, herritar, irailean aukerarik izango dugu herriko plazan elkar topo eta topa egiteko, besteak beste badator eta 4. Topa Eszenika.

EGITARAUZ

Aurten ez da Kale Antzerki Egunik antolatuta baina iraileko hiru larunbatetan hainbat kale antzerki izango ditugu. Eta horiekin batera IV. Topa Eszenika. Horiez gain, herrian ekintza gehiago izango dira eta asko parte hartzaileak gainera (ikus Kultur agenda).

Markeliñe etorriko da, 8an "Terapia?" rekin gazte eta helduentzako eta 15ean adin guztietarako: "Zoo-zoom". Bietan lan ikusgarriekin. Irudimena eta kalitatea. Gero, irailaren 28an "Ispilua" amateur landua, zuzena eta zirikatzailea. Antzezlan horretan "Terapia?" n lez, biko-teaz mintzo dira. Beraz, entretenimenduak gogoetarako balekoak izan ahal dira.

Irailaren 29an denetarik izango dugu: Zumetaren murala ezagutzeko aukera (gure herriko ondarea ezagutzen jarraitzeko), tailerrak (antzerkilaritza lantzeko), zirko-antzerkia (gozatzeko) eta "Gure bide galduak" (azkenaldiko antzezlanik onenetarikoa). Dejabu-ko lagunak Usurbilen beste lau alditan izan genituen. 2008ko azaroran "Gizona ez da txoria" lan bikainarekin etorri zirenean, Sutegira ikusle gutxi bertaratu ziren. Pena handia izango litzateke oraingoan ere jende gutxi etortzea. Pena handia eta salbuespena. Orain arteko ibilbidean, antzezlan honek harre-ra jendetsua jaso baitu. Argi dago, beraz. Antzezlan guztien informazioa interneten aurki daitekeelarik, ez dago zuzenekoak bezalakorik.

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
943 370 008

TAXI 24h
Jose Etxabe USURBIL

677 37 34 66
943 36 21 78

EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

Zuen
publizitatea
hemen

943 360 321
publizitatea@noaua.com

Laster abiatuko da II. Udarregi Sariketa

LEHEN SAIOA AGERIALDEN IZANGO DA IRAILAREN 15EAN; BIGARRENA SAN PRAIXKUTAN

Bota Punttubakoek iaz estreina-koz antolatu zuten Udarregi Sariketaren bigarren edizioa iragarri dute udazken honetarako. Hasiera batean, lehen edizioak jarraipena baldin bazuen, ekimena bi urtez behin ospatzekotan geratu ziren bertsozale taldekoak. Azkenean ordea, iaz Gipuzkoako Txapelketarekin eta datorren urtean, Euskal Herrikoarekin egokituko zela jakinik, Udarregi Sariketa 2012an berriz ospatzea erabaki dute. Eta lehen saioa irailaren 15erako iragarria dago.

HASTEKO, BETERANOAK

Iaz bezala, hasteko aurten ere bi finalerdi jokatu dira. Lehen saioan, hilaren 15ekoan, sei beterano lehiatu dira eta 6 gazte Aginagako San Praixkutan.



Ane Labakak irabazi zuen iaz sariketa.

Finalerdi bakoitzetik hiruna bertsolari igaroko dira, bertsolari bana entzuleak aukuratuta, azaroaren 17an ospatuko den final saio handira. Beraz, saltsa lehen kanpora-

ketan bertan sortuko da. Hasteko, sei bertsolari beterano bilduko ditu Bota Punttubak irailaren 15ean, 14:00etatik aurrera Agerialden ospatuko den bertso bazkarian: Xabier Zeberio, Mikel Mendizabal, Iñaki Murua, Altzo Txiki, Jokin Matxiandiarena eta Millan Telleria.

“ITZELEZKO AUKERA”

“Goierritar kuadrila honek salbuespeneko saioak salbu, plazako jarduna utzia du eta beraz, itzelezko aukera da bertso-tan entzuteko irailaren 15eko zita”, iragarri dute Bota Punttubako kideek.

TXARTELAK SALGAI DIRA

Hitzordurako sarrerak 18 eurotan salgai egongo dira Txiribogan eta Txirristran, irailaren 13ra arte.

Igandean Tuterako kantujira nazionalera joateko deia egin da

Usurbilgo Nafartarrak eta Euskal Kantu taldeetatik igandean, Tuterara (Nafarroa) joateko gonbita luzatzen diete herritarrei. Bertan, Kantujira nazionala ospatuko da, Nafarroako Konkistaren bosgarren mendeurrenaren testuinguruan antolatu diren ekimenen artean.

Usurbildik autobusa irtengo da goizeko 8:30etan. Izen emateko zerrenda Txiribogan jarria egon da. Hona hemen, irailaren 9rako prestatua duten egitaraua:

EGITARAUA

8:30 Irteera autobusez Usurbildik.

11:00 Hamaiketako Lizeo gunean.

12:00 Tuterako Lizeotik aterako gara. Geldialdi zenbait burutuko ditugu. Soinujoleak, txistulariak, trikitilariak, zantantzarrak, dantza taldeak eta abar lagun izanen ditugu. Foruen Plazan manifestua irakurriko dugu eta Lizeoan bukatuko dugu.

14:30 Bazkaria Lizeoan. Ondoren kafe-kontzertua: kantaldia eta nahi duen guztien partehartzea.



Nafartarrak eta Kantu Taldekoak egin dute Tuterara hurbiltzeko gonbitea.

19:00-20:00 Itzulera autobusez Usurbila.

BAZKARIA, 18 EURO

Bazkarira joan nahi duenak, 18 euro ordaindu beharko ditu alde zurretik, Kantu Taldekoek Euskadiko Kutxan duten kontu korrante zenbaki honetan: 3035 0140 31 140103449.8.

Menua: Tuterako potxak, haragi gisatua, izozkia eta kafea. Likoreak barran salduko dira.

Irailak 22, euskararen aldeko lasterketa

Euskararen aldeko lasterka antolatu da 60 bat udalerritan. Usurbilen, Udalak eta zenbait herri eragilek bat egin dute Kontseiluak deituriko "Euskaraz bizi nahi dut" izeneko ekimenarekin.

Haurren lasterketa 500 metrokoa izango da. Helduena, lau kilometrokoa. Biak, arratsaldeko 16:30etik aurrera.

Informazio gehiago kiroldegian jasoteke. Dena den, datorren astean emango ditugu xehetasun gehiago.

Aginagako Pala Txapelketa

Irailak 13 osteguna, 19:00

Xabier Errasti – Iban Arruti
Josu Arruti – Imanol Esnaola

Unai Loidi – Jon Olaizola
Xabier Murua – Josu Errekondo

XLI Dinastia Etxabe txapela irabazi berri du Xabier Santxok, Kerman Galarzarekin batera. Zestoan jokatzeko da txapelketa entzutetsu hau.

V. Baxurde Krosa

Irailaren 16an izango da eta aurten Kiroldegitik abiatuko da; izen-ematea ere bertan egin daiteke

Badator giro polita eta kirol zaletasuna pizten duen proba herriko ezaguna; jada bosgarren ediziora ailegatu den Baxurde Krosa. 2012koa irailaren 16an ospatuko da. Izen ematea zabalik dago jada eta hain zuzen, alde aurretik apuntatzeko deia egin dute antolakuntzatik. Parte hartzaileek jada astebete baino ez dute, ia hamaika kilometroko proba prestatzeko.

Mikel Laboa plazan burutzen ari diren lanak tarteko, aurtengoan lekuz aldatu dute irailaren 16an ospatuko den V. Baxurde Krossaren irteera eta helmuga. Baxurde Txiki Usurbilgo Triatloi Taldeak antolatutako ekimena, Oiardo Kiroldegitik abiatu eta leku berean amaituko da oraingoan. Leku aldaketa egon arren, gainerakoan, ibilbidea aurreko urtee-



Aldez aurretik bada, 10 eurokoa da izen ematea. Egunean bertan, 13.

tako bera izango da, 10,75 kilometroko lasterketa burutu beharko dute kirolariek. Ohi bezala, Kaxkoa, Santuenea, Zubieta edota Kalezar zeharkatu beharko dituzte, helmugara iritsi aurretik. Lasterketa ordua ere, aurreko urteetako da; goizeko 11:00etarako irteeragunean egon beharko dute.

Ia hamaika kilometroko proba amaitu ostean, parte hartzaileentzat kamisetak, luntxa eta zozketak izango dira.

IZEN-EMATEA IREKITA

Baxurde Krosean parte hartu asmo dutenek, alde aurretik izena eman dezakete Oiardo Kiroldegian, edota kirolpro-

BAXURDE TXIKI

“Aurrez apuntatzeko deia egiten dugu, egunean bertan guri lan asko aurrezten digulako”

bak.com web orrian. Antolazaila gogorarazi dutenez, txip horia dutenek alde aurretik 10 euro ordaindu beharko dituzte, 13 euro egunean bertan. Txip horirik ez dutenek aldiz, 12 euro alde aurretik edota 15 euro egunean bertan. Baxurde Txikitik apuntatzea proba egunerako ez uztea eskatzen dute. “Ahal duen guztiari aurrez apuntatzeko deia egiten diogu, egunean bertan guri lan asko aurrezten digulako”, adierazi dute. Proba antolatzen lagundu duten guztiei esker ona helarazi nahi diete Baxurde Txikitik.

Senior mailako eskubaloi taldeak hilabete amaieran hasiko dira lehian

Senior mailako nesken taldeak irailaren 30ean hasiko du 2012-2013 kirol urtea. Oñatin, Aloña Mendi taldekoen aurka. Ligako lehen fasea, Andoainen amaituko dute hurrengo urteko otsailaren 17an, Andoaingo CDB Leizaranen aurka. Usurbil Kirol Elkartetik berri eman dutenez, “gure taldeak sailkapena lortuko balu, Estatu mailako Zilarrezko Ohorezko mailara igotzeko Euskadiko fasea jokatuko luke, eta hor ere sailkatuko balitz, Estatu mailako sektorea”.

Irailako azken asteburuan ekingo dio denboraldi berriari baita, seniorren 2. nazional

mailako taldeak. Gasteizen. “Onenen artean bukatuz gero, liga ostean 1. nazional mailara igotzeko Estatu mailako fasea jokatuko luke gure taldeak”, berri eman dute Usurbil Kirol Elkartetik.

LH 6. MAILAKO IKASLEENTZAT AUKERA

Usurbil Kirol Elkarteak alebin mailako errendimendu hastapenerako eskubaloi ligan parte hartzera gonbidatzen ditu LH 6. mailako ikasleak, 2001. urtean jaiotakoak. “Iaz izan zuen arrakasta ikusita, berriz ere parte hartzeko aukera zabaldu nahi dizuegu”, adierazi dute kirol elkartetik, eta gai-



Irailaren 30ean hasiko dira partidak.

neratu dutenez, “liga honetara Gipuzkoako Kirol Elkarte onenei gonbidatzen zaie”.

Gipuzkoako Eskubaloi Federazioak eta Foru Aldundiak antolatzen duten txapelketari buruzko informazio edo argibide gehiago jaso nahi duenak, helbide honetara idatzi besterik ez du: alebinak.usurbilke@gmail.com

Judo taldekoek ekin diote ikasturte berriari

Astelehen honetan, irailaren 3an ekin diote ikasturte berriari, Usurbil Judo Klubekoek. Abuztuaren 26tik 31ra Coimbra (Portugal) egon ondoren abiarazi dute 2012/2013 denboraldia. Entrenamendu saioetarako ordutegiok finkatu dituzte:

Helduak

■ Astelehen, asteazken eta ostiraletan. 19:45-21:30.

Tartekoak

■ Astelehen eta asteazkenetan. 18:00-19:00 artean.

Haurrak

■ Astearte eta ostegunetan. 17:00-18:00 artean.

ETXEBIZITZA
Salgai

11 urteko pisu bat salgai Aginagan, 3 logela, sukaldea, egongela, 2 komuna, 2 balkoi, garaia (30m) eta trasteroa. 173.000 euro. VPO baldintzak. 657703091

Pisua alokagai Santuenean, berria, dena kanpoaldera eta argitasun haundikoa. 677471648.

Pisu bat salgai Atxegalden. 3 gela, bi komun, sukalde eta salarekin. 662 439 880.

Pisua alokatzen da Kaxkoan, Txaramunto kalean: 3 gela, sukaldea, bi komun eta sala. Garajea aukeran. Abala eskatuko da. 656 75 70 73.

Pisu bat alokatzen da Santuenean. 679 366 415.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462

3 logelako pisu bat alokatzen da Muna Lurra kalean. 661 43 63 53.

Lau logeletako etxebizitza bat alokatzen da Atxegalden. Informazioa: 659389707 / nerezabala1@gmail.com

Pisua alokairuan Santuenean, 65m berritua, 2 logela, 650 euro. Tf: 667 438 145.

Etxe bat alokatzen da Artaxoan (Nafarroa). 4 logela, jangelak handia, lorategia. Hilabeterako edota baita uda parterako ere. 450 euro. 670 090 262 (Irene)

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.com Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, arratsaldeko 18:00ak. Atal bakoitzaren goialdean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOUA!ko erredakzio batzordeak ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Etxea salgai Kalezarren bista ederrekin. 2 solairukoa, bakoitza 115 metro koadro. Eta 2 solairuko borda dena 3.000 m lur saillean. 665720913 / 665720914

Kaxkoan atiko berria salgai. 2 logela, sala, komuna, sukaldea eta 2 terraza handi bista ederrekin. Trasteroa eta garajea. 665720913 / 665720914.

Pisu bat salgai Kaxkoan. Dena berritua. 3 balkoi eta ganbara. Eguzkitsua eta prezio onean. 697 204 758.

Pisua salgai Munalurran. 3 gela, sukalde jangela, berogailua. Sartzeko moduan. 31 milioi pezetan. 943370957.

Aukera ezin hobea! Etxea salgai Santuenean auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

Pisua alokatzen dut Elgoibarren. Lau gela. 677 780 680.

3-5 gela arteko pisua alokatzen dut Castellonen, oporraldi, aste-buru pasa edota ezkontza agurrerako. Itsaso, gaztelu eta

mendialdeko bistak ditu. 677 780 680.

Pisua salgai, San Esteban kalea 11n. 4.pisua. Kanpoaldera ematen du eta eguzkitsua da. Hiru gela, sukalde eta jangelarekin, komuna, terraza eta ganbararekin. 943 455 202 edo 697 530 792.

Pisua salgai, San Ignazio 5 kalean. 3 logela, 100 metro karratu eta terraza. 340.000 euro. 648 013 277

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 674 848 346

Logela bat alokatzen da Usurbilgo erdigunean. 667740266.

Etxebizitza salgai Atxegalden. 86 metro, sukalde-jangela handia, 3 logela, egongela, 2 bainu-gela, ganbara, terraza handia. Berritua. 232.000 euro. 699 189 764.

Pisu bat alokatzen da, lau gela, sukaldea, sala eta komunarekin. 609 011 816 / 943 366 318

Pisua salgai Atxegalden. Sukaldea, egongela handia, 3 logela, bi komun, ganbara, igogailua. 662 056 899.

Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak, dena kanpoaldera, 20 metro koadro trasteroa, dena berritua, fatxada, teitlatua konpondu berriak. 677 471 648.

Pisua alokairuan Atxegalden. 3 gela, sukaldea, bi komun, terraza eta igogailuarekin. 943 371 066 / 637 309 209.

Etxebizitza bat salgai Usurbilen. 60 metro. 3 gela, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa. 943 37 26 33 - 943 36 22 15.

Usurbilen edo inguruan, alokairu konpartituan etxe baten bila nabil (ekinetik aurrera). 622 856 181.

Atxegalden lau logeletako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. Telefonoa: 699 720 940.

85 metroko etxebizitza alokatzen dut kaxkoan. 3 gela, 2 terraza eta trasteroa. 616064059 (gautan deitu).

90 m pisu bat salgai Usurbilen. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 komun, 7 metroko ganbara. Oso eguzkitsua eta bizitzen jartzeko moduan. 699 680 265 (eguerdian edo 20:00etatik aurrera). 237.000 euro.

Lokala alokatzen da Atxegalden (lehen Truke zena). Prezioa: 360 euro. 943 373 414.

Lau logeletako etxebizitza salgai Atxegalden. Ganbara ere badu. Aukera garajea erosteko. 699720940.

Salgai dago Usurbilen etxe fami-

liar polit bat, kiroldegi ondoan. Tel. 646.041915 Amaia.

MOTORRA
salmenta, garajeak

Garaje itxi bat alokatzen da Etxealdian. 943 372 256.

Karbonozko bizikleta bat salgai. Ultegra taldekoa. Prezio ona. 600 244 126.

Baju komertziala salgai Atxegalden. 50m2, etxebizitza lizentzia ateratzeko aukera. 659389707 nerezabala1@gmail.com

Scooter bat salgai, 450 euro. Egoera onean. 678 603 659.

Lokal bat alokatzen da Usurbilen, 90 metro koadro. 250 euro. Gazteentzat..., Atxegalden. 628 063 871.

Lokal komertzial bat alokatzen da Atxegalden, Aristitxo kalean. Bi solairu, bakoitza 45 m, guztira 90 metro. Argia, ura eta komuna. 658 716 970.

38 m garaje itxia salgai, Txaramuntan. 665 677 195.

LANPOSTUAK
Lan eskaerak

Arratsaldetan umeak zaintzeko neska bat. Nahiago Usurbilgoa eta euskalduna izatea. 676355635.

Lan eskaintzak

Usurbilen bizi den pakistandar batek, ingeles klaseak emango

Zorion-agurrak



Zorionak Unax! Zure 10. urtebetetzean ondo,

ondo pasa. Muxu handi bat. Oihan, June, Anje eta Aratz.



Zorionak Ekaitz! Gure morroxko-

ak lehen urtebetetzea ospatu zuen abuztuaren 14an.

**Zorionak!!**

Gazte okupak ere zuen urtebetetzearekin oroitu gara! Gaztetxea bai, espetxerik ez!



Zorionak Ibai eta Ekain! Muxu handi bana, etxekoan partez.





Zorionak Ramon eta Xabier! Demaplazan gaude baina gure benetako dema zuek hementxe izatea da denok elkarrekin zuen urtebetetzeak ospatzeko. Eutsi goiari!

Jaiotzak

Martin Otaduy Sagarna	uztailak 10
Zuriñe Castro Martinez	uztailak 16
Nerea Gilgado Fernandez	uztailak 25
Mateo Piñeiro Ardanaz	uztailak 26

Heriotzak

Maria Isabel Garcia Rincon	
72 urterekin, abuztuaren 9an	
Ignacia Bengoetxea Larrañaga	
56 urterekin, abuztuaren 29an	
Aurora Martin Perez	
105 urterekin, abuztuaren 23an Santuenean	

lituzke gaztelania edo euskara-
ren truke. 632 418 008. Rahe-
em Abdul.

21 urteko neska usurbildar eus-
kaldun bat eskaintzen da hau-
rrak zaindu edota klase partiku-
larrak emateko LH-n nahiz DBH-
n. Esperientziaduna. 666 041
971 (Ane)

Jardineritzako lanak egiten ditut
txukun eta modu onean: 677 443
140 (Iñaki).

Neska arduratsua garbiketa lane-
tan orduka lan egiteko prest. 678
998 840.

18 urteko mutil bat lanerako
prest. Baratzean laguntzeko,
morroi lanetarako, tabernan
lan egiteko edo enkarguak egi-
teko. Tlf.: 626 735 354.

Interna moduan edo orduka lan
egingo nuke. 636929990.

Helduak zaindu edota etxeko
lanak egiteko. Orduka edo inter-
na moduan. 608 774 999.

17 urteko neska euskalduna,
udan lan egiteko prest: umeak
zaintzeko, ikasketetan lagun-
tzeko, ... Esperientzia umeekin eta
Bigarren Batxilerra amaitua.
665754889 / 634459249 (Ane)

16 urteko mutil euskalduna naiz
eta udarako lan bila nabil. Ume-
ak zaindu edo indarra behar den
lanak egiteko prest nago, baita
beste edozein lan ere. Batxile-
rreko lehen maila amaitua.
665754889 / 692577515 (Xabier)

Interna moduan edo orduka lan
egingo nuke. 609632030.

Zerbitzari edo sukaldari lagun-
tzaille moduan lan egingo nuke.
650 032 454.

Esperientzia handia izan eta
arduratsua den neska eskaintzen
da garbiketa lanetarako. 618
030 296.

Ontziak garbitzeko edo sukaldari
laguntzaille gisa lan egingo
nuke. 677 108 568

Emakume esperientziadun bat
eskaintzen da umeak edo per-
tsona helduak zaindu eta etxe-
ko lanak egiteko. Claudia. 663
117 579.

Gizonezko bat eskaintzen da,
jatorriz euskalduna, edozein
lanetarako. Helduak zaindu,
sukaldean lagundu edo baserri-
ko lanetan aritzeko. 627 206 451.

Emakume bat eskaintzen da,
adineko pertsonak zaintzeko,
etxeko lanak egiteko eta osta-
laritza lanetan aritzeko. Interna
moduan ere bai. Tlf.: 673 445
903.

Emakumea eskaintzen da, ordu-
ka etxeko lanak egiteko. 662
247 324

Umeak zainduko nituzke arra-

tsaldez edo zerbitzari moduan
lan egingo nuke asteburuetan.
638 894 845.

Neska euskalduna eta usurbil-
darra naiz, eta arratsaldetan
haurrak zaintzeko zein klase par-
tikularrak emateko prest. Atze-
rriko Hizkuntzako Majisteritza
eta Haur Hezkuntza diploma-
tua naiz. Badut esperientzia.
652712099.

Neska bat eskaintzen da, helduak
edo umeak zaintzeko, edo etxe-
ko lanak egiteko. Orduka edo
interna moduan. Tlf.: 628 692
334.

LHko haurrentzat klase partiku-
larrak emateko neska eskaintzen
da. 680 453 563 (Maialen).

BESTELAKOAK

Kotxe kapota bat dohainik. Nor-
baitek nahiko balu deitu telefo-
no honetara. Tel. 657 714 355.

Angora arrazako 10 katu txiki
opari. 628 745 443.

Mutil baten txamarra, talla 10-
12, galdu zaigu frontoian. Beig
eta urdin kolorekoa. 656 702 957.

Etxean egindako ardi gazta sal-
tzen da. 687 348 223

Landetan "movil home" bat alo-
katzen da "Lago Leon" en. Aste
Santuko bigarren astea, uztaila
eta iraila. "Punta Lago" kanpi-
nean. 634 443 909.

Hemengo babarruna salgai: 637
974 994.

Haur sila eta kapazoa erosiko
nuke: 667 715 075.

Hemengo urra eta patata ero-
siko nituzke. 634409888.

Zaldi bat jartzeko lursaila alo-
katuko nuke 616260 451

Akordeioa saltzen dut. Gutxi
erabilia. 943 370 344.

Hemengo intxaurrak salgai. 943
67 11 60.

Ezkontzetan abesteko talde bokal
bat nahi baduzu, deitu 665 745
071 (Iñaki).

Ezkontza zein ekitaldietan abes-
teko kantari lirikoa. Maketa bat
entzungai daukat. 690784113.

Telefono interesgarriak

Udala	943 371 951	Taxia (Angel)	607 928 770
Atez ateko bulegoa	943 369 113	Taxia (Joxe Kruz)	677 373 466
Udaltzaingoa	943 361 112	Eusko Tren	943 470 976
Udal zerbitzuak (Brigada)	943 370 148	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Anbulategia	943 362 013
Diputazioa - Basetxea	943 361 215	Oa botika	943 376 076
Bake Epaitegia	943 372 336	Iturralde botika	943 363 395
Udarregi Ikastola	943 361 216	DYA	943 464 622
Haur Eskola	943 374 061	Gurutze Gorria	943 272 222
Zubietako Lanbide Eskola	943 364 600	Emergentziak	112
Zubietako Herri Batzarra	943 372 077	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163
Hastapen tailerrak	943 360 465	Gipuzkoa Donostia Kutxa	943 361 202
KZgunea	943 570 999	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Oiardo Kirolegia	943 372 498	Banco Guipuzcoano	943 370 006
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Banco Popular Español	943 370 411
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	BBVA	943 377 155
Etumeta AEK Euskaltegia	943 372 001	Caja Rural Kutxa	943 368 842
Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	Argindarra - Iberdrola	901 202 020
Gure Pakea Zahar Egoitza	943 368 770	Gas naturala - Naturgas	902 123 456
Gure Elkarte Zahar Egoitza	943 371 751	Telefonica	1004
Arrate Zahar Egoitza	943 366 340	Euskaltel	900 840 840

Goardiako farmaziak irailaren 6tik 16ra

Osteguna	6	GIL	Kale Nagusia 24 Lasarte
Ostirala	7	RODRIGUEZ	Kale Nagusia 42 Lasarte
Larunbata	8	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte
Igandea	9	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte
Astelehena	10	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte
Astearte	11	ORUE	Jaizkible plaza 2 Lasarte
Asteazkena	12	RODRIGUEZ	Kale Nagusia 42 Lasarte

Osteguna	13	ORUE	Jaizkibel 2. Lasarte
Ostirala	14	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte
Larunbata	15	ACHA-ORBEA	Hipodromo etorbi. 6. Lasarte
Igandea	16	ACHA-ORBEA	Hipodromo etorbi. 6. Lasarte

* LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita
egongo dira: 9:00etatik
13:30era.

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
ECHEVESTE. Elkano kalea 9, behea.
Hernani. Tel.: 943 552 087
22:00 - 09:00

URTE OSOKO EGUTEGIA JASOTZEKO BIDALI FARMA 25600 ZENBAKIRA (1,39 BEZ barne)



Agenda Iraila

7 ostirala

- **Kutsaduraren aurkako elkarretaratzea**
Atxegalden, arratsaldeko 20:00etan N-634 errepidean, ITAYAK deituta.

8 larunbata

- **"Mauritania eguna"**. Kalezarren, 9:00-18:00.
- **Santixabeletako bideo eta argazki emanaldia**, gaueko 22:00etan frontoian.
- **"Terapia?"**, kale antzerkia frontoian, 23:00.

9 igandea

- **Kantujira nazionala Tuteran**. Egunpasa. Deitzaileak: Usurbilgo Kantu Taldea eta Nafartarrak taldea (ikus 14. orrialdeko albistea).

"Terapia?" izeneko antzezlanaren larunbat honetan frontoian

Maitasunetik maitasun ezara pausu bat dago soilik: denbora. Hori da, gutxienez, Markeliñe antzerki taldeak "Terapia?" lanak aditzera ematen duena. IV. Topa Eszenikaren eskutik ikus ahal izango dugu larunbat honetan, frontoian.

Bikotearen arteko maitasun txinparta itzaltzearen momentu horretarako, Markeliñe taldeak proposamen bat egingen du bere antzezanaren bitartez: terapia, bere izenak adierazten duen bezala.

Antzezaneko protagonistak txorien hegaldian oinarritzen den ustezko terapia batean murgiltzen dira. Hegaldian, arnasketa eta armoniarekin batera,



Larunbat honetan, gaueko 23:00etan taularatuko dira Markeliñeko antzezleak.

lasaitasuna eta ekilibrioaren bila doaz. Erabakiak hartzeko unea ere iritsiko zaie protagonistei. Azkenean, hegan egingen jarraitzea erabakitzen dute.

Ikuskizun guztian zehar, ezustekoak ugariak izango dira.

Santixabeletako irudi ederrenak ikusteko aukera

Peru Galbete bideo irudiak hartzen aritu zen. Ibai Arrieta, aldiz, argazkiak ateratzen. Bien lanak ikusgai izango dira larunbat honetan, frontoian, gaueko 22:00etan hasiko den proiektioan. Antolatzailea: Santixabeletako Jai Batzordea.

Katekesian izena emateko epea ireki da

Usurbilgo Salbatore Parrokiako katekesi taldeetan izena emateko egunak hauek izango dira: Irailaren 11 eta 12an 17:30-19:00etara Parrokiako bulegoetan. Gurasoak bertaratzea komeniko litzateke.

Datozenak

"Lainocean", diaporama Sutegin

Iñaki Agirresarobek hainbat argazki-bilduma eskaini ditu azken boladan. Irailaren 13an osteguna, lanbrocean ateratako argazkiak erakutsiko ditu Sutegin. 19:30ean, sarrera doan.

"Zoozoom" antzezlanaren

Datorren larunbatean, irailak 15, itsas maskor baten oihartzunak beste garai eta mundu batzuetara eramango gaitu. Arratsaldeko 18:00etan frontoian.

Baxurde Krosaren laugarren edizioa

Baxurde Txiki triatloi taldearen ekimenak gero eta jarraitzaile gehiago ditu. Irailaren 16an igandea, goizeko 11:00ean abiatuko da herri lasterketa.

Trukea Txokoalden

Irailaren 23an igandea, goizeko 11:00etatik 14:00etara truke azoka Txokoalden. Goizean trukea egiteko aukera izango da eta ondoren bazkaria.

LAUKOTE
okindegia
kafeteria
LAUKOTE
Puntapax 16, beheka 943 360 980

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

Otar-Goxo
Elkarguak
Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

OSTEOPATIA ZERBITZUA
KATIAK ALZOLA
OSTEOPATIA D. O. FICHAZATUTAKO
LAI 204 771
HITZORDUA:
607 85 82 08
Zubiaurrenea 4, ☎ 943 361 951



FRANTSES KLASEAK

- Frantzia oso gertu dagoelako
- Profesionalki garrantzitsua
- Frantses pixkat bazenekien baina ahaztu bazaizu eta berreskuratu nahi baduzu...
- Jubilatuentzat ere klaseak

AUKERA EDERRA DAUKAZU!

Astean zehar ordutegi ezberdinak aukeran goizez edo arratsaldez

608 18 03 07 Usurbil

MIL KADENA

TALDE MURRIZTUAK ETA PERTSONALIZATUAK

- Lehen eta Bigarren hezkuntza
- Batxilergoa · Selektibitatea
- Lanbide heziketa
- Ikasketak teknikoak
- Hizkuntzak

629944690

Galtzaragaña 1, behea USURBIL

PSU
serigrafia

serigiosu@serigrafiaiosu.com

- kamiseta inprimategia
- pegatinak
- iragarki nahiz industri serigrafia
- laneko arropak
- enpresa opariak
- boligrafoak
- txiskeroak
- laser markaketak...

www.serigrafiaiosu.com

Ugaldea polig. 36 tel: 943 371954 USURBIL



Ofizioen Gida



URDAINTZI
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
urdaintzi@euskalnet.net

· ERAIKUNTZAK · OBRAK
· BERRITZE LANAK

Andoni Errazkin

Xukin
igeltseritza orokorra

663 08 76 71
943 24 34 65

Barne eta kanpoko lanak

Jose Aizpurua
Unanue eraikuntzak S.L.

teillatuak eta fatxadak

943 37 38 79
620 80 01 86

Kale Nagusia 14, Behea (atzekaldea), LASARTE-ORIA

Josue
Igeltseritza S.L.

Fax: 943 24 34 60
Atallu pol. atallu, 28
20170 - USURBIL

606 37 21 05

Igeltseritza orokorra

Errazkin S.L.

igeltseritza orokorra

943 240 176 eta 649 435 470

Oztaran auzoa 33, URNIETA



ANORGA TXIBI S.L.
KRISTALDEGIA

· komertzial instalazioak
· beira bikoitza · segurtasun beirak
· dutxa-itxiturak eta irristailuak

943 37 17 33- 610 45 93 45

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA



Enrique Alonso
ITURGINTZA
GASA-BEROKUNTZA

Oro har libratze-lanak
TB kamerakin hodi eta tximinien azterketa
BAIMENDUTAKO INSTALATZAILEA

659 675 283

LATAILLADE
ITURGINTZA

Gasa, berogintza,
klimatizazioa, instalazioak
eta mantenimendua

943 363 348 - 609 888 021

Javier Orbegozo
GASA-BEROKUNTZA

659 602 789

erreka txiki 13, 3.esk

JOSEBA
ARANGUREN
ITURGINTZA

943 83 00 72
659 88 39 12

Bainu eta sukalde
erreformak, gasa,
berokuntza

Jose txo Ikatzeta

687 951 225



MARGOAK - PAPERAK

FERNANDO
PINTORAK

ENPAPELAKETAK eta
PINTURAK OROKORREAN

nagusia, 1 TEL: 943 36 60 19



Antonio
URRUSOLA
AROSZTEGIA

Tel/Fax: 943 376 415

Asteasuain Industrialdea, 3

BARRENETXE

Salsamendi Arregi, Imanol
AROSZTEGIA

943 362 664

Barren Etxe kalea ZUBIETA



izagirreletrizitatea@hotmail.com

izagirre

Elektrizitatea

Apdo. 37
943 36 50 95
609 06 81 11
943 37 65 87

Goiz Argi etxea n° 37
Kale Zahar Auzoa

ARGILAN
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

629 272 859
943 361 380

BORDA-BERRI 5, baxua USURBIL